

URTEL

KARTIA

2023/24

zubitxo

IKASTURTE BERRIARI ONGI ETORRIA

Udara ostean, berriro ere Ikastolara itzultzeko garaia iritsi zen. Aurten ere probentzio saioekin egin genion irikiera ikasturteari. Bertan dinamika desberdinak egin ziren talde kohe-sioa eta elkar bizitza sustatzeko asmoz. Txikienek, aldiz, familiarizazioaldiari ekin zioten, Ikastolara gurasoeekin inguratu ziren eta pixkanaka konfiantza hartzen joan ziren. Bertan jolas, abesti eta dinamika batzuk egin zituzten.



ONGI ETORRI
IKASTURTE
BERRIRA!!!!



FORMAZIOA: 0-6 JOLASAREN GARRANTZIA

Ohiko den bezala, Irailaren lehen asteetan, Zumarragako Zelai Aristi aretoan, Ikastolen Elkartek antolatutako formazio saioak jaso zituzten HHko irakasleek.

Agurtzane Mujika eta Alvaro Beñaran izan ziren formazioaren emaitzak eta gaia berriz JOLASA 0-6. Gaia interesgarria izan zen eta adituek argi eta garbi adierazi zuten jolasaren garrantzia adin tarte honetan: "Jolasa beharrezkoa da ikaskuntzarako haurra bere osotasunean hazteko".



GURASO BILERAK

Iraila bukaera eta Urria hasierako tartean, urteroko guraso bilerak egin ziren bi ikastoletan. Bertan, tutore eta gurasoen arteko lehen harremana egin eta aldi berean ikasturteko norabideen berri emateko helburuarekin egin zituzten.

KILOMETROAK EGUNERAKO AUTOBUSA

Galtzaundi Euskara Taldeak Orereta-Errenterian ospatu ziren Kilometroetara joateko aukera zabaldu zuen. Aurtengo edizioan RENFEk ez zituen zerbitzu bereziak antolatu eta bi ikastoletan izena emateko aukera zabaldu zen.



IKASTOLEN HASIERAKO EKITALDIA VIANAN



Vianako Kultur Etxean Ikastolen Elkartearen irikiera ofiziala izan zen.. Bertan, Euskal Herri osoko Ikastolen ordezkariak gonbidatuta zeuden eta bestelako arduradun politikoak ere bai. Ekimen horren bitartez, gure presentzia gizartean azaldu eta aurrera eramaten dugun lana aldarrikatzeko balio izan zuen.

SAN MIGELAK



Irurako Ikastola presente izan zen festetan zehar, Lehengoko Ikastola zaharrean txozna montatu zuten eta bertan ateratako irabaziaz zorrak ordaintzeko erabili zuten Eskerrak eman parte hartutako guasoei eta denon artean errezagoa egiten da lanean aritzea.


URTEKARIA 2023/24

HAUR HEZKUNTZAKO IRTEERAK

Irurako Ikastola eta Anoetako Herri Ikastolaren haurrek elkarrekin egindako txangoen berri hemen:

3 urteko haurrak Usurbilen kokatuta dagoen Izar parkera joan ziren eta bertan salto eta brinkoen artean pozik ibili ziren. Oso ondo pasa zuten.

4 urteko haurrak aldiz Amezketa Pello Zabala erro-tara joan ziren. Errotak nola funtzionatzen zuen ikusi, artoa aletu, irina bihurtu eta taloak egin zituzten. Bukaeran, txokolatezko taloak jan zituzten eta txangoari bukaera herriko par-kean eman zien.



5 urteko haurrak aldiz, Pa-goetara joan ziren, Iturrarane-ra. Hegazti eta intsektu des-berdinak ezagutu zituzten eta bukaeran kandela bana egin zuten.



IGERIKETA KANPAINA

Anoetako Herri Ikastolak, Irurako Ikastolarekin batera, hilabete hone-tan Eskola Igeriketa kanpainari ha-siera eman zioten beste urte batez. LH3 eta 4ko ikasleen txanda izan zen. Aurrerantzean bestelako mailek izan zuten aukera Villabonako piszina-n. Kanpainak, igeriketa sustatzea eta parte hartzen duten ikasleek igerike-taren oinarritzko trebetasunak garat-zea zuen helburu.



BI IKASTOLEN ARTEKO KIDETZEAK

Bi ikastolen arteko harremanak sendotze aldera, ikasturtean zehar HH eta LHko bi Ikastoletako ikasleentzako hainbat saio antolatzen dira be-raien arteko ezagutza eta talde kohesioa lantze-ko. Oraingo honetan, LH3 eta 4ko ikasleek eta irakasleek hartu dute parte Iruran bertan. Ondo-ren HHkoak bertaratuta ziren eta hilabetea bukatu aurretik LH 5-6 koak izan ziren. Gurera etortzen direnerako lehenengo urratsak eman nahi ditu-gu beraien arteko harremanak sustatuz. Jola-sean oinarritutako dinamikak aurrera eramán zituzten.



KIVA EGUNA

KiVa eguna ospatu zuten bi Ikastoletako ika-sleek zein irakasleek. KiVa Programarekin lo-tura estua duten errespetua, babesa, zaintza eta bizikidetzatza hitzen garrantziaz ausnartu eta elkarbizitza oparo baten bidean lana egin zuten. Arratsalde ezberdin eta atsegin bat igaro zu-ten ikasleek, eta elkar ezagutzeko denbora tarte batean harremantzeko eta taldean zere-gin bat aurrera eramateko aukera paregabea ere izan zuten.



URTEKARIA 2023/24

BI EGUNETAKO IRTEERAK IRURAN

LH4-5 eta 6ko ikasleak Hondarribin izan ziren 2 egunetako irteeran. Eguraldi bikaina aprobetxatuz, mendiaz eta hondartzaz gozatzeko aukera politta izan zuten. Irteerako argazki gehiago ikusteko egin klik [hemen](#).

Lehen Hezkuntzako lehen zikloko ikasleak (LH1-2 eta 3) . Hondarribin ere izan ziren bi egunetako irteeran.

Eguraldi zoragarria egin zuenez, hondartzaz eta txalupan itsasoaz gozatzeko aukera izan zuten. Gainera, lagunekin lo egiteko esperientzia ere bizitu zuten taldeko txikieneek.

Hemen dituzue egun hauetako ekintzetako zenbait [argazki](#). Datorren urtean berriz!!





BASO ESKOLA BERRIRO MARTXAN DA

Urrian 2023-2024 urteko Baso Eskola saioei hasiera eman zitzaien. Basoan goiza pasaz, dinamika zein esperientazio ezberdinak gauzatu dituzte ikasturtean zehar.


Saioen helburua, natur inguruneak gizakioi eskaintzen dizkigun onurak baliatzea da, pertsona osasuntsu, erresiliente, sortzaile, independente eta autokonfiantzadunak eraikitze prozesuan.



ERRIGORA KANPAINA

10 urte bete-bete leloarekin etorri zen azkeneko udazkeneko Errigora kanpaina. Urriaren 20tik azaroaren 9ra eskaerak egiteko aukera izango genuen.

Udazkenetako kanpaina da Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka: Nafarroa hegoalde eta erdialde-ko produktuz osatutako saskiak milaka etxetara eraman nahi izan ziren, eta, auzolanari esker, bertako euskalgintzari ekarpen-ekonomiko garrantzitsua egin zitzaien.



GAU BELTZA GIROTZEN IBILI ZIREN IKASTOLETAN

Bi Ikastoletako maila guztietan egitarau oparoa prestatu genuen Gau Beltza ospatzea aldera. Urriaren 31n etapaz etapa prestatutakoa aurrera eraman genuen: HHkoek: zer den azaldu, kalabazak hustu, beldurraren inguruan hitz egin, abestiak entzun eta kantatu. LHkoek: mahai jokoan aritu, kalabaza pastela errezeta landu, gaiaz hausnartu, ...

Euskara Elkartearen gidaritzapean azalpenak eman, abestiak entzun, erreportaiak ikusi, herriari begira moztarok prestatu, ...

Irura Bizi taldearen eskutik herrian zehar hainbat ekintza proposatu zituzten, arratsaldean herria girotzeko asmoz moztarotzeko aukera izan zuten eta gaztainak janez amaitu zuten eguna. Hona hemen bideo txiki bat.

Argazkiak ikusteko [hemen](#) klikatu

URTEKARIA 2023/24

BESKOITZEKO
IKASTOLAREN ALDE

Beskoitzeko Ikastolako ikasleak pairatzen ari diren egoera tamalgarriak zirela eta, azaroaren 18rako manifestaziorako deia egin zen, Beskoitzen bertan. Bi Ikastolek bat egin zuten deialdiarekin eta gure komunitateari gonbita helerazi zitzaion bertan parte hartzeko.

Ikasleak aspalditik jangela normaltasunez bazkaltzeko arazo larriak zituzten eta baita debekuak ere. Hori gutxi izanik, bertako Herriko Etxetik laguntzarik ez zegoen eta bai ordea, oztopo pila.



ZIBERBULING
GAIA LANDU DUTE LH6ko
IKASLEEK

Aniztasuna balore positibo bezala landu zuten gure ikasleek. LH6ko ikasleak Ziberbullingaren inguruko lanketa burutu zuten. Anoetakoak hilabete honetan eta Irurakoak otsailean. Mural bat egitea izan zen helburu eta asmo horrekin bertan, ziberbulinga zer den azaldu zuten, biktimaren eta erasotzailearen jokabideak zehaztu, aholkuak eskainiz, prebentziorako gakoak, Sare sozialen adikzioa eta horren garrantzia... azpimarratuz.



LH2koek
ISPILUARI
BEGIRA
PROGRAMARI
TARTEA
EGIN
ZIOTEN

UEMAren laguntzarekin gela bertan hizkuntza ohiturak landu zituzten. LH2ko gure ikasleek UEMako hezitzaileen eskutik Ispiluari begira izeneko tailerra egin zuten. Tailer honen bidez, egunerokotasuneko hizkuntza ohiturak tratatu zituzten herriko zenbait gunetan.

Zenbait mural sortu zituzten eta lanketaren ondorioak beste kideen aurrean azaldu zituzten, baita gurasoen aurrean ere.

AZAROAK 25,
EMAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIA NAZIOARTEKO EGUNAK
TOKIA IZAN ZUEN GURE IKASTOLETAN



Hainbat ekimen eman ziren aurrera gure ikasleak kontzientziazte aldera. Anoetako Herri Ikastolan animazio bideoak, Arturo eta Klemendina ipuina, Estereotipoen bideoak, bi gazteen arteko harreman bideoa, Volar dokumentala, ...ikusi zituzten. Irurako Ikastolan aldiz, egunaren garrantziaz hitz egin zuten eta zenbait baloreen inguruan lanketak egin zituzten.

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA A-3

Abenduaren 3a egun berezia izan genuen bi Ikastoletan, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatu baituen.

Irurako Ikastolan, goizean John Cabang munduko Joku Olinpikoetan parte hartuko duen ikasle ohia eta Maria Lasa korrikalarien bisita izan genuen. Elkarriketa interesgarria sortu zen beraiekin eta ikasleek zituzten galdera sortekin. Ondoren LH5ekoek bertsoak abestu eta Arikala proiektuaren aurkezpena egin ziguten. HHkoek, Argitxo ibiltariaren bisita izan zuten eta opari moduan ipuin batzuk ekarri zituzkien. Gustora aritu ziren ipuinak ikusten eta argitxo margotzen, arri murri zapero, argitxoren abestia entzuten zuten bitartean.

Arratsaldean aldiz, dantzan eta **Irurako** Eguzkigoxo abesbatzarekin kantuan aritu ziren frontoian. Amaitzeko, txokolatada ederra dastatu zuten bertara gerturatu ziren guztiek.

Anoetako Herri Ikastolan aldiz, goizean manifestuaren irakurketa. Borobilean emanaldi irekia ikasle eta gurasoei begira, Jon Fernandez kazetariaren bisita izan genuen. Bere bizi-penak eta euskararen inguruko galderei erantzuteko aukera izan zuen.

Euskaraz urteko 365 egunetan!!!

Jaialdiko argazkiak [hemen](#)



TXOTXONGILO IRTEERA

Urtero bezala, Irura Ikastolako eta Anoeta Herri Ikastolako LH3-4-5-6ko ikasleek irteera izan zuten Titirijai jaialdiaren baitan Tolosara. Batzuek, goizeko lehen emanaldian, Zaches konpainia italiarraren **Cenicienta** ikusi zuten eta besteek Mar Mar antzerki taldearen eskutik **Arrainak Bihotzean** ikusizunaz gozatzeko aukera izan zuten Leidorren. Bigarren emanaldian berriz, Maribor konpainia esloveniarraren **Pinocchio** izan zuten ikusgai Topicen eta besteek aldiz Zurrunka taldearen **Aiko**. Txotxongiloen munduan erabiltzen diren teknika ezberdinak ezagutzeaz gain, ipuin tradizionalen bertsio berritzaileenez gozatzeko parada izan zuten ikasleek. Eguna borobiltzeko, guztiek elkarrekin bazkaldu zuten Zerkausian eta jolasean aritu ziren.

SAHARAKO KANPAINA

Aurreko urteetan egin izan dugun bezala, Tolosaldea Sahararekin elkarrekin elkarlanean, Hilabete honetan zehar Saharako kanpalekuek bidaltzeko material bilketa egin genuen bi Ikastoletan. Janaria

ez ezik, pixa-ohialak, konpresak eta eskolarako materialak ere bildu ziren. Ziur gaude aurten ere bestetan bezain eskuzabal jokatu genuela. Mila esker guztioi!!



URTEKARIA 2023/24

OHIKO BATZARRAK BI IKASTOLETAN

Ikastolaren organu gorenak, bazkideen asanbaldak alegia, Ohiko Batzarra ospatu zuen. Nagusiki, aurreko ikasturteko kontuak eta ikasturte honetakoak ontzat eman ziren eta baita ikasturte honetako plan pedagogikoaren berri ere. Anoetako eta Irurako udalei aipamen berezia egin zitzaion beren laguntza eskertuz.



GABONAK ETA KONTSUMO TAILERRAK

Urtero bezala, Gabonen aurretik, kontsumoari buruzko sentsibilizazioa egiteko asmoz, bi ikastoletan lanketa berezia egin zuten. Aurten ere, Tolosako Ingurumen Zentrokoen eskutik hainbat dinamika aurrera eraman zituzten ikasleekin: Gabonak bero-bero elkarriketa, kandela pote bat egin material berrerabilgarriaz, ... Etxeetan egiten den kontsumoaren inguruko oinarri-zkoa hausnarketa bultzatu nahi izan zen ekimen honen bitartez.



ESKOLA AGENDA 2030

Eskola Agenda 2030 programak ingurumenaren al-deko zaintza eta konpromisoa garatzeko programa laguntzeko digu. 2022-2024 arteko ikasturteetan Nazio Batuetako Erakundeak adostutako Garapen Iraunkorreko 18 helburuetatik, energiari dagokion 7. helburua lantzen aritu gara.

laz egindako energiaren inguruko diagnostiko eta ateratako ondorioetatik abiatuz aurten horiei erantzuteko esku hartze plana gauzatzea dagokigu. Prozesu guztian zehar ikasleak izaten dira protagonistak. Ikasturte amaieran maila guztietako ikasle ordezkariak egindako lanaren emaitza, hartutako konpromisoak eta hobetze-proposamenak helarazi zizkieten Udalari, Udal Foroaren bitartez.



ABENDUAK 24an, KANTU ESKEAN HERRIAN ZEHAR

Abenduaren 24an herriko kaleak alaitzera atera ginen ikasle, irakasle eta gurasoak. Gabon kantak abestuz ibili ginen bertaratutako guztiok.

Amaitzeko, Irurako labade-roan elkartu ginen Anoetako Herri Ikastolako DBHkoekin eta elkarrekin Olentzeroren koplak abestu genituen bertan eta herriko plazan. Irurako Ikastolako haurrek Olentzeroren bisita jaso zuten abenduaren 22an. ilusio eta urduritasun handiak izan ziren nagusi.

Hemen dituzue egun horretako hainbat argazki [argazkiak Irurako Ikastola](#) eta Anoetako Herri Ikastolako [argazkiak](#).



SAN TOMAS EGUNA OSPATU GENUEN

Ohikoa dugun San Tomas egunaren ospakizunez beteriko goiza izan dugu bi ikastoletan: gelen arteko zoriortzeko bertsoak eta postalak abestu eta banatu zizkieten elkarri, DBH4koek txorixo pintxoan salmenta egin zuten eta bi ikastoletan jateko aukera izan genuen...Giro ona izan zen nagusi eta gustura aritu ziren gure ikasleak.




CIBERSECURITY

Lehen aldiz , LH5 eta LH6ko guraso eta ikasleek gailuen segurtasunaren inguruko formazioa jasotzeko aukera izan zuten .Saio honetan, interneta, sare sozialak eta konektaturiko beste hainbat zerbitzu eta teknologiak erabiltzearen arrisku eta onuren inguruko solasaldia izan zen. Seme-alabek aurki dezaketen arrisku-egoerei aurre egiten laguntzeko prebentzio neurri, erabilerara-ohiturak eta onurak elkarrekin aztertzen, eta horren inguruko dudak argitzen saiatu ziren.



ERO-ETXEKO KROSA

Ero-Etxe elkartearen 35. Krosean Anoetako Herri Ikastolako eta Iru-rako Ikastolako hainbat ikaslek parte hartu zuten. Benjamin, alebin eta infantil kategorietan izan ziren goi-zean zehar. Giro oso atsegina izan zuten bai parte-hartzaileek, bai bertan ikusten ari zirenek. Hemendik zoriondu besterik ez ekimena urte-ro aurrera eramaten duten guztiei.



AIZ-ORRATZ MARRAZKI LEHIAKETA

Bi Ikastoletako ikasleek Aiz-Orratz Elkarateak antolatzen duen marrazki - lehiaketarako marrazkiak egin eta margotze lanak bukatu zituzten. Epai-mahikideen eskutara pasa ziren eta Tolosaladeko ikastetxeetako partaide guztien artean saridunak zeintzuk izan ziren jakin zen. HH eta LHko ikasleek 4 kategoritan banatuta hartu zuten parte. Otsailaren 3an Haur Jaialdian bukaera emango zitzaion, irabazleak sarituz. Aipatu marrazki lehiaketan Iru-rako Ikastolako LHko Jakes Azaldegi izan zela irabazlea.



SANTA AGEDA EGUNAREN BEZPERA

Ikasturte honetan igandea izanik, bi Ikastoletan Ikaslez, irakaslez eta gurasoez talde sendoa osatu genuen Santa Ageda ospakizuna bergogoratzeko. Irura eta Anoetako hainbat kale eta auzotatik pasa eta gero, DBHkoak Irurara joan ziren, bertako Ikastolakoekin koplak kantatzeko. Argazkiak [hemen](#)



EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA HAUSNARTZEN

kastolen Elkarteko zuzendariak elkartu ziren Hendaian Euskara eta Euskal kulturaren egungo egoerari buruz hausnarketa partekatu bat egiteko. Nolakoa da egoera? Nola egokitu behar dira ikastolak egoera honetara? Zein aukera daude? Zein baliabide?... izan ziren esku artean eduki zituzten gaiak.

Argi geratu zen, euskararen esparruak hiru direla: eremu formala, ez formala eta familia. Josune Zabalak, gaiaren inguruan bere ekarpen zabala eta zuzena ere egin zuen.

MATRIKULAZIO KANPAINA

Otsailean 2024-2025 ikasturterako Matrikulazio kanpainari hasiera eman zitzaion bi Ikastoletan. Horretarako, Ate Irekiak jardunaldiak antolatu zituzten guraso berriei begira. Bertan bi Ikastolen funtzionamendua azaldu, gelak erakutsi eta metodologiaren ezaugarrien berri eman zitzaion bertaratu ziren guztiei.

Matrikularen datak zehaztu zitzaizkien, ikasturte honetan otsailaren 7tik 23ra, hain zuzen ere.



ALBAOLARA IRTEERA LH2

Anoetako Herri Ikastola eta Irurako Ikastolako LH2ko ikasleek Txanelako Boga-boga marinela gaiari amaiera emateko Pasaiaiko Itsas Kultur Faktoria bisitatu zuten. Bertan, Museoa bisitatu eta balearen tailerra egin ahal izan zuten. Euskal Herriko itsas kultura eta bere ondarea gertutik ezagutzeko aukera paregabea izan zuten. Ba al zenekiten bertan XVI. mendeko San Juan baleontziaren erreplika eraikitzen ari direla?

INAUTERIAK 2024 Iruran

Inauterien aurreko astean ospatu zen Irurako Ikastolako jaialdia. Ikasleek aste horietan ikasitakoa eta dantzarako jarritako gogoari esker ikuskizun paregabea izan zen. Irakasle eta guraso bolondresen laguntzari esker dena oso ondo atera zen. Hona hemen Inauterietako [bideoa](#).

LH6ko aurkezleek, unibertsoan dauden beste planetetako ezaugarri hoberenak bildu eta Lur planetara ekarri zituzten, mundu berri bat lortzeko asmoz. Zurteko eta HH1koen planeta hortaitik elkartasuna eta besarkadak jaso zituzten; HH2 eta HH3ko planeta berdetik natura zaintzearen garrantzia; LH1 eta LH2koen planeta urdinean maitasuna jaso zuten, eta LH3 eta LH4koen zilar planetan aldiz digitalizazioa. Azkenik, LH5 eta LH6ko ikasleek LUR planeta hobea-go bat irudikatu zuten jaialdiari amaiera emanez.



ANDE TAKO HERRI IKASTOLA / IKASTOLA

URTEKARIA 2023/24

INAUTERIAK 2024 Anoetan

Ostegun bezperan aldiz, Anoetako Herri Ikastola berea ospatu zuen. Gaia KOLOREAK izan genuen eta sormen lan polita egin zen. Herriko kiroldegia jendez bete zitzaigun eta denontzat gozagarria izan zen saioa.

Eskerrak eman bi ikastoletan parte hartu zuten guztiei. Ezin ahaztu antolaketan eta bilketa lanetan aritutako gurasoak.

Argazkiak Irura
[Argazkiak Anoetako Herri Ikastola](#)
ZORIONAK DENOI!!



MARTXOAK 8, ALDARRIKAPEN EGUNA

"Zuetaz Harro" da 2024ko martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Egunaren kanpainaren leloa. Esaldi honekin batera doan leloak, "Ahalduntutako emakume bakoitzaren atzean ahalduntzera bultzatu duen beste emakume bat egon da", emakume adinduek gazteen ahalduntzean egindako ekarpena goraipatzen du, belaunaldien arteko harremanaren garrantzia bereziki azpimarratuz.

Lelo honen bueltan etapa, gela bakoitzak bere lanketa egin zuen adinari egokitu-tako material desberdinak erabiliz.



IKASTOLEN ARTEKO VII. BATZARRA

Otsailaren 26an, ikastolek heldu den ekainaren 22an ospatu zen VII. Batzarraren prozesua aurkeztu zuten. Baileretako hurrengo zortzi-hamar urteetan ikastolen mugimenduak egingo dituen urratsak eta ezarriko dituen mugarrak erabaki ziren. Batzarrari begira, ikastoletan hasi zen eztabaida prozesua, helburuak eta konpromisoak azaltzeko.

Horren harira, martxoaren 7an Laskorain Ikastolan, Anoeta, Irura, Laskorain, Uzturpe, Zubimusu, Inmakulada eta Larramendi ikastoletako Errektore Kontseiluko eta zuzendaritzetako kideak bildu ziren, Ikastolen Elkarteak dituen helburu eta erronkak azaldu, sozializatu eta kontrastatzeko asmoz. Bertan, Nekane Artolak eta Zigor Ibartzabalek dinamizatuta, NONDIK GATOZ, NON GAUDE eta NORA GOAZ dokumentuak aztertu eta ekarpenak egiteko aukera izan genuen. Ondoren, Ikastola bakoitzak bere komunitatean lanketa egiteko eta enmendakinak biltzeko epea ireki zen..



KORRIKA TXIKIA-KORRIKA 2024

Martxoaren 21ean, arratsalde, Irurako eta Anoetako ikastolen artean Korrika Txikia antolatu genuen. Bi herrian zehar Euskararen presentzia bermatu zen eta txandaz txanda eta umez ume lekukoa aldatzen joan zen bi herrien arteko zubirarte. Bertan, lekukoa Anoetako Ikastolako haurrei pasa ondoren, bakoitzak bere bidea egin zuen, batzuk ikastolara eta besteak herriko frontoiera itzuli ziren bertan antolaturiko ekintza desberdinak burutzea.

Euskararen aldeko aldarria zabaltzeko herrian zehar, giro eta eguraldi ona lagun izan genuelarik. Hona hemen Irurako Ikastolako [argazki](#) batzuk eta Anoetako Herri Ikastolakoak [argazkiak](#).

Arratsalde polita igaro genuen eta indarrak hartu genituen larunbatean 14:45ean pasa zen Korrika ofizialean ere parte hartzeko.



LH5koek KRISTINA-ENEAKO FUNDAZIOAK ANTOLATUTAKO EKIMENEAN PARTE HARTU ZUTEN

Pasa den ostiralean, martxoak 22, Anoetako eta Irurako LH5 mailako ikasleak Donostian izan ziren egun pasa. Bertan, Kristina-Eneako fundaziokoek laguntzaz ekintza desberdinak burutu zituzten. Batetik, arrantza teknikak ezagutu eta praktikatu zituzten, bestetik berriz, Donostiako kaia eta bertako pasadizoak ezagutzeko parada izan zuten. Hori guztiaz gain, Kontxako hondartzan jolasteko eta Alderdi Ederren bazkaltzeko aukera ere baliatu zuten. Opor giro betean, egun pasa atsegina izan zuten.

LH4koek ZIENTZIA MUSEOA BISITATU ZUTEN

Bi ikastoletako LH4ko ikasleak, zientzien mundu harrigarrian murgildu ziren Donostiako Zientzia museoan. Egun borobila igaro zuten eta gauza asko ikasi zituzten. Bertako monitoreek 2 dinamika prestatu zizkieten, alde batetik giza gorputza ezagutzen aritu ziren eta bestetik naturako elementuen inguruko esperimendu batzuk erakutsi zizkien. Hala ere, bertako parkean bazkaldu ondoren, museoan bertan esperimendatzeko aukera izan zuten, denbora libre eskaini baitziguten eta asko gozatu zuten!

LH3koek PAGOETAKO PARKE NATURALA BISITATU ZUTEN.

Bi ikastoletako LH3ko ikasleak Pagoetako Parke Naturalean izan ziren. Bertan, Natura osasun iturri ekintza burutu zuten. Lehendabizi orientazio frogak egin zuten eta ondoren yoga ariketa batzuk bertako eraikinean. Egun pasa polita egin zuten, gune natural batean.

LH1koek DONOSTIAKO ZIENTZIA MUSEOA BISITAN

Martxoaren 22an, HH1koek Donostiako Eureka! Zientzia Museora irteera egin zuten. Oraingo honetan Irurako eta Anoetako Herri Ikastolako ikasleak elkarrekin joan ziren. Gorputza eta legoaren tailerretan parte hartu eta gero, museoa bisitatzeko aukera ere izan zuten. Ondo pasaz, ikasi ere ikasi zuten.

HHKOAK LEIDOR ZINEMARA JOAN ZIREN

Irurako Ikastola eta Anoetako Herri Ikastolako HHko ikasleak Tolosako Leidor aretoan izan ziren euskarazko Barraskiloa eta Balea filma ikusten.. Mundua aurkitzeko gogoarekin, barraskilo txiki bat bidaia batean sartzen da, balea konkordunaren isatsera, itsasoetan zehar. Adiskidetasun istorio polita, itsaspeko munduko lekuri harrigarrienak eta magikoenak zeharkatuko dituen. Oso goiz atsegina pasa zuten gure ikasle txikienek.

INMAKULADA IKASTETXEKO IKASLEEN BITARTEZ LEHENENGO SOROSPENAK LANTZEN

Apirilaren 17an, Inmakulada Ikastetxeko ikasleak etorri ziren LH6ko ikasleei lehen sorospeneko formakuntza txiki bat ematea. Oso interesgarria eta baliagarria izan zen eman ziguten informazio guztia eta teoriak aparte praktikan jaritzeko aukera izan genuen. Lerro hauetatik gure eskerrak etorri zirenei.



LH6KOAK ZIENTZIA MUSEOAN

Bi ikastoletako LH6ko ikasleak Eureka Zientzia Museora egin zuten irteera. Bi tailer egiteko aukera izan zuten: bata, Legoen inguruko tailerra eta, bestea, Matematikako Scape room moduko erronka. Robotika eta Legoak uztartzen zituen tailerrean, taldeka robot txiki bat eraiki zuten eta ondoren lasterketa batekin amaitu. Matematikako erronkan, berriz, Scape room batean murgildu ziren eta horretarako, hainbat erronka matematiko gainditu behar izan zituzten. Zientzia museoa bera ere bisitatzeko aukera izan zuten eta giro atsegina batez kideze borobil bat egin zuten.



HAUR HEZKUNTZAKO IRTEERA

Irurako Ikastolako eta Anoetako Herri Ikastolako ikasleak Azpeitiko tren museora joan ziren (irurakoak maiatzaren 3an eta anoetakoak maiatzaren 17an) Ikasturte bukaerako txangoa egitera. Bertan tren museoan ikusi zuten eta ondoren Lasaoko bidean barrena Lokomotora zaharrean ibiltzeko aukera paregabea izan zuten. Ondoren, ogitarteko goxoak jan zituzten barrenak berdintzeko eta jolasean aritu ondoren, autobusez itzuli ziren Ikastoletara.



URTEKARIA 2023/24

IKASTOLAREN EGUNA

MAIATZAK 11

10:30 Mendi ibilaldi luzea/ 12:00 mendi ibilaldi motza

- Gogorazten dizuegu haur talde bakoitzak gutxienez guraso baten arduraspean joan behar duela ibilbide guztian zehar. Ez da irakasle arduradunik izango

13:00 Argazkia plazan eta jarraian kalejira.

13:15 Bertso emanaldia eta dantzak

14:00 Bazkaria.

- Gogoratu bakoitzak bere mahai-tresnak, edalontzia, platera, expainzapia.
- Bazkal orduan haurrak heldu baten arduraspean egon behar dute.

Bazkalostean BINGOA

Aurpegi margoketa eta DJ BULL (16:30-18:30)

2 MARISKADEN ZOZKETA ERE IZANGO DA




IRURAKO IKASTOLAREN EGUNA

Larunbatean, maiatzaren 11n, Irurako Ikastolaren eguna ospatu zen giro ezin hobean. Goizean mendi ibilaldiak burutu ziren. Ondoren, denok elkarrekin argazkia atera genuen herriko plazan eta kalejiran Ikastolara joan ginen. Ikasleen dantza eta bertso emanaldiek eguerdiko tarte girotu zuten. Guraso talde batek egindako paella ederra, urtetik urtea hobia ateratzen zaiela esan behar da, jan genuen. Hasieran, eguraldia lagun izan bazen ere, kafearekin batera trumoi eta tximisten bisita iritsi zen. BINGOA eta mariskadaren zozketa aterpean egin behar izan genuen. Hala eta guztiz ere, euritan dantzan egiteko prestutasuna azaldu genuen eta giro ezin hobea sortu zen.

Arratsaldean girotzeko DJ Bull izan genuen musika jartzen eta LH6koek aurpegi margoketan aritu ziren. Euria goitik-behera aritu arren, denon artean festa polita izatea lortu genuen.

Hemen dituzue ateratako [argazki](#) eta [bideoak](#) ikusgarri.



IKASTURTE BUKAE RAKO KIDETZEAK

Hilabete honetan eta ekainean zehar, LHko mailatan bi Ikastolen artean aurreikusitako kidezte eta familiari-zazio saioak izan dira. Irura eta Anoetako Herri ikastolako LHko ikasleek denok elkarrekin goiz pasak aurrera eramane zituzten. Dinamika ezberdinak aurrera eramane eta beraie arteko elkar ezagutza lantzeko aukera izan zuten.



ANOETAKO JAIK

Anoetako Herri Ikastolak herriko jaietan hainbat unetan protagonismo berezia hartu zuen. Herri krosa eta Haurrentzako Danborradaren antolaketan murgildurik izan zen, herriko beste hainbat erekunderekin batera. Festa alaiak eta paketsuak opa zien bertaratu zien guztiei.



BI ETA BOST EGUNETAKO IRTEERAK ANDETAKO HERRI IKASTOLAN

DBHko irteerak
DBH1 Sarria
DBH2 Oibar
DBH3 Lekeitio
DBH4 Kataluina



ANDETAKO HERRI IKASTOLA / IRURAKO IKASTOLA

URTEKARIA 2023/24

LHko irteerak
LH1-2 Hondarribi
LH3-4 Beizama
LH5-6 Arantzazu




URTEKARIA 2023/24

ANDE TAKO HERRI IKASTOLA / IRURAKO IKASTOLA

HHkoak HERNIALDEN EGUN PASA

Asteazkenean, ekainak 5, Irurako eta Anoetako Herri Ikastoletako HHko ikasleak eta irakasleak denak elkarrekin egun pasa egin zuten Hernialden. Anoetatik Hernialderako bidea hartu eta oinez bertaratu ziren anoetarrak. Irurakoak aldiz, autobusez abitu eta bertan paseotxo bat eman zuten. Frontoiaren atzealdean dagoen parkean jolasten aritu ondoren, etxetik ekarritako ogitartekoak jan zuten. Sorpresa gisa bertan erositako helatua jan zuten. Eta nahikoa jolastu zutenean, autobusa hartu eta bakoitza bere Ikastolara gerturatu zen. Prime-rako eguna pasa zuten elkarrekin !!!



BERTSO ESKOLAREN BUKAERA SAIOA

Ikasturtean zehar go-goz landutako bertso mundua erakusteko parada izan zuten LH5/6ko ikasleek. Ekainaren hasieran, bertso saioak ospatu zituzten LH5 eta LH6 mailetako ikasleek.

Ikasturte osoan zehar, Amaia Agirre bertsolariaren gidaritzapean, ordubetez aritu dira astero-astero hutsik egin gabe. Jolasen eta kantuen bidez, bertso mundua ezagutu eta zaletasuna pizteko aukera paregabea izan dute.

Saioa bertan, bat-batean aritu ziren mikro aurrean eta urtean zehar ikasitakoa erakusteko aukera izan zuten. Txukun aritu ziren gure ikasleak. Ea animatu eta laister plazetan ikusten ditugun kantari!



ESKOLAKO AGENDA 2030 UDAL FOROA

Ekainean, Anoetako Herri Ikastola eta Irurako Ikastoletako Agenda 2030eko ordezkariak bi Udaletara hurbildu ziren, azken bi urtetan landutako enegiaren gaiaren bueltan antolatutako esku hartze plana aurkeztera. Bertan Udala bakoitzak eta Ikastolak egindako lanketen elkarren berri izan zuten. Gure aldetik, bi Udalen laguntzarekin, lanean jarraituko dugu denon artean iraunkortasun eta lankidetzaren kultura zabaltzeko.



ANOETAKO HERRI IKASTOLA / IRURAKO IKASTOLA

ANOETAKO HERRI IKASTOLAREN EGUNA

Igandean, hilak 16, Anoetako Herri Ikastolako Eguna arrakastatsua ospatu genuen. Egunean zehar aktibitate eta jarduera ezberdinak aurrera eramane ziren: 09:00etan ibilaldi neurtua, ikasle txikien kalejira eta dantza emanaldia, ikasleen eskularen erakusketa eta DBH4koen agurra eta jokuak. Denok elkarrekin herriko frontoian bazkaldu eta arratsaldean bingo, sari banaketak, aurpegi marrazketak, umeentzako jolasak eta koreografiak hartu zuten bere lekua. Giro ederrean eta Ikastola garen guztion parte hartzearekin beste urte batez ekin genion festari. Lerro hauetatik eskerrik beroenak lanean aritutako guztioi.



ELKARRIZKETA



JOHN CABANG

“Joko Olinpikoetara joatea da nire helburua eta ahal den ondoen egitea”

Gure ikasle izandakoak Parisko Joko Olinpikoetan du jarrita bere helburua. Berari egindako elkarrizketa dugu honako hau eta bertan bere ibilbidea, helburuak eta ametsen berri eman digu.

1.-Kirolarientzat gailurra dira Joko Olinpikoak eta zu aurten Paris2024an izango zara. Noiz hasi zinen pentsatzen ametsa egi bihurtu zitekeela?
Egia esan beti daukagu esperantza hurrengo denbo-

raldia hobe izango den, marka on bat egiteko gai izango naizen ... Orain dela bi urte nahiko ondo joaten hasi zitzaidan, ez Olinpiar Jokoetara begira baina urte ona eta asko hobetu nuen.

laz, lehengo urtean, oso konpetizio onak burutu nituen eta horrekin hasi ginen pentsatzen agian posible izango zela Joko Olinpikoetara joatea. Asiako bi txapelketa ere lehiatu nituen emaitza oso onak lortuz, 4. postuan sailkatu nintzen bietan. Emaitza horiek lortzeak puntu asko eman zizkidan eta rankinean gora egin nuen aukerak zabalduz.

2.-21 urterekin aparra bezala gorantz doan atleta zara, aurten zure marka onena egin duzu. Zein da zure helburua Joko Olinpikoetan? (postua, marka,...)
Oraindik ez nago barruan, rankinaren arabera doanez ekainaren 30ean isten denean jakingo dut ziurtasunez banoan ala ez. Helburua joatea da eta joaten banaiz ziur borrokatzea izango dela. Erronka handia da, neure burua bertan kudeatzea ez da erreza izango, estadio haundi bat, jendea... baina ni oso konpetitiboa naiz eta ziur borrokatuko dudala.

3.-110m hesiak abiadurako froga oso teknikoa da, zein da zure indar gunea? Eta zer duzu hobetzeko?

Nire indargunea teknika da, Joko Olinpikoetara joaten banaiz seguruena altueran txikienetarikoa izango naiz eta gainera nire hesiak jotzen baditut denbora asko galduko dut. Horregatik hesien frogan teknika oso garrantzitsua baita.

Hobetzeko abiadura esango nuke. Nahiko azkarra naiz hesi gabe baina oraindik hobetzeko margen bat dudala pentsatzen dugu.

4.-Zer eman dio atletismoak 8 urterekin Iru-rako Ikastolara etorri zen mutil koxkor hari?

Txikitatik bixia izan naiz, korri egitea asko gustatzen zitzaidan, batetik bestera mugitu... baina jolas modura, inongo helbururik gabe. Atletismoak gauza asko eman dizkit, bai bizitza pertsonalerako eta bai kirolerako. Alde batetik, nire %100 emateko ahalmena eta bestetik zentratuagoa egoteko kemena. Azken finean, atletismoak nire kasuan sakrifizio handiak eskatu izan dizkit: ordu asko pista gainean, denbora asko bakarrik, buru hauste asko kudeatzeko... Izugarri ikasi dut kirol honi esker.

5.-Berazubitik Joko Olinpikoetarako bidean, norekin oroitzen zara?
Berazubiko garaiak oso presente ditut, ni Gabriel eta Alejandro Herrero Anoetako bi gazte ikusi nituen hesiak saltatzen. Askok gustatu zitzaidan eta horrela hasi nintzen ni ere hesiak egiten. Askok gogoratzen naiz nire taldekide izan diren Ander Urangarekin anoetarra, Eneko Meñakarekin asteasuarra, Urko Odriozolarekin tolosarra eta Joseba Larraurirekin irurarra. Oso momentu onak pasa ditut beraiekin. Orain, bakoitzak bere bidea hartu du. Josebak oraindik atletismoan jarraitzen du baina froga desberdinak egiten ditugu eta entrenatzailea ere desberdina dugunez ez gara hainbeste ikusten.

6.-Zer aholku emango zenioke atletismoan hasi berri den ume bati?

Nire aholkua dibertitzea eta ondo pasatzea da. Gustura eta ondo pasatzen baduzu dena errazago egiten da eta ondoren datozen sakrifizio eta entrenamenduak arosogoratu eramanen dira. Beraz ondo pasa!!!

Bueno John, eskarrik asko hartu duzun denboragatik, oso gustura entzun dugu bidalitako elkarrizketa eta zortetik hobereena opa dizugu.

Jakin, Parisera joaten bazara han izango garela, telebistatik bada ere, gure animo eta indar guztiak bidaliz.

ESKERRIK ASKO!



AGURRAK



Iruran,

ekainaren 21ean, LH6ko agurra ospatu genuen Ikastolako patioan. Irakasle, ikasle zein gurasoek parte hartu zuten bertan. Hamaikak aldera, irakasle taldeak agurra dantzatu eta bertsoak abestu ondoren hitz goxoekin etapari amaiera eman zioten.

ZORTE ON IBILBIDE BERRIAN!!!

**Abestu, marraztu, jolastu
Zalaparta ederrean
itatolan andereñokin
Txikiak zinetenean**

**Segi, hazi
Jator adiskide artean
Hazi, segi zorionaren bidean**

**Urtez-urte gora ta gora
la irakasleen pare
Saiatuta egin zarete
gaitasun askoren jabe**

**Segi, hazi
Jator adiskide artean
Hazi, segi zorionaren bidean**

**Ikasten jarraitu aurrera
Ezina ekinez egin
Hartzazue gure bultzada
Zuen ametsa bete dadin**

**Segi, hazi
Jator adiskide artean
Hazi, segi zorionaren bidean**

Anoetako Herri Ikastolan,

ekainaren 23an, ikasturteari bukaera emanaldi partekatu batez eman genion. HHtik hasita DBH4. maila bitartekoak Ikastolako borobilean bildu eta hainbat ikuskizun aurrera eramane ziren. Denok bere ale-txoa jarritz festa polita aurrera atera genuen.

Ikasle eta irakasle guztiak zoriondu ikasturtean zehar eginiko lana eta esfortzua-rengatik eta oporraldi opa-roa eskaini. Hemen duzue DBH4koek abestutako agurra-ren zatia:

15 urte igaro ondoren,
amaitu zaigu bidea,
etapa on hau geratu zaigu,
oroitzapenez betea,
faltan botako zaituzteun arren,
izango dugun bakea,
oraingo hontan tokatu zaigu,
zuei agur esatea. (bis)

Irakasleak izan zarete,
haurtzarotik bidelagun,
denbora guzti hau eta gero,
ondo amaitu dezagun.
Inoiz ez gara ahaztuko zuetaz,
nahiz ta hori ematen dun,
memorian gordeta zaudete,
beti, bai gau ta bai egun.(bis)





A child is drawing a circle on a dark asphalt surface using a piece of white chalk. The child's hand and part of their arm are visible on the left side of the frame. The circle is already partially drawn, and the child is in the process of completing it.

**Arurako
Ikastola**



A child is drawing a circle on a dark asphalt surface using a piece of white chalk. The child's hand and part of their arm are visible on the left side of the frame. The circle is already partially drawn, and the child is in the process of completing it.

**ANOETAKO
HERRI IKASTOLA**